



Laburpena: 2014/07/21

ETXEBIZITZA BEHARREI ETA ESKAEREI BURUZKO INKESTA (EBEI)

2013. urtean, euskal familien % 10,3k etxebizitza birgaitzeko beharra zuen, eta % 7,1ek, berriz, etxebizitza aldatzeko beharra

1. ETXEBIZITZA NAGUSIA BIRGAITZEKO BEHARRA


2011tik 2013ra bitartean, %19,6 igo zen birgaitzearekin loturiko esku hartzeko beharra. Arabak eta Bizkaiak eragin dute igoera hori.

Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistikak erakusten duenez, 2013. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 90.139 etxebizitzak zuten birgaitzeko beharra. Kopuru hori EAEko familia-etxebizitza guztien %10,3 da. Beraz, esan beharra dago birgaitzeko ekintzaren baten beharra duten etxebizitzek gora egin dutela 2011. urtetik, behar hori zutenak %8,9 baitziren orduan. Kopuru absolututan, 14.797 etxebizitza gehiago dira esku hartzeko beharra dutenak; 2011. urtean baino %19,6 gehiago.

Azpimarratzekoa da igoera hori oso-oso handia izan dela Araban. Lurralde horretan, 7.829 etxebizitzak zuten birgaitzeko beharra 2011. urtean, eta 18.132 etxebizitzak 2013an; hots, igoera %131,6koa izan da. 2011. urtean birgaitzeko beharra zuten etxebizitzen ehunekoei dagokienez, EAEko ehunekorik txikiena zuen Arabak (%6,2). 2013. urtean, ordea, esku hartzeko behar erlatiborik handiena du aipatutako lurraldeak. Birgaitzeko ekintzaren baten beharra zuten familia-etxebizitzak %13,5 ziren 2013. urtean.

Kopuru absolututan, aldiz, birgaitzeko beharra duten etxebizitza gehienak Bizkaikoak dira oraindik ere: 44.499, lurraldeko etxebizitza guztien %9,7. Nahiz eta Arabako igoera bezain handia ez izan, Bizkaian ere asko igo dira birgaitzeko beharra duten etxebizitzak: igoera, hain zuzen ere, %15,1ekoa izan da 2011. urtean detektatutako 38.649 etxebizitzekiko.

Gipuzkoan, birgaitzeko beharra duten etxebizitzen pisu erlatiboa %9,8koa zen 2013an, Bizkaiko datuaren antzekoa; baina Gipuzkoan, EAEko beste bi lurraldeetan ez bezala, ez da igoerarik izan: 2011. urtean, 28.864 etxebizitza ziren birgaitzeko beharra zutenak (urte hartako etxebizitza guztien %10,6), eta 2013an, aldiz, 27.508 etxebizitza.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

1. taula
Etxebizitza birgaitzeko beharren kuantifikazioa, lurralde historikoka.
EAE. 2005-2013

(Kopuru absolutuak eta etxe guztiekiko ehunekoak)

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kopurua	% etxe guztiekiko	Kopurua	% etxe guztiekiko	Kop.	% etxe guztiekiko	Kop.	% etxe guztiekiko
2005	111.469	14,3	15.152	13,9	60.748	14,5	35.566	14,3
2006	134.028	17,0	18.112	16,3	70.975	16,8	44.950	17,8
2007	113.396	14,2	13.957	12,3	63.181	14,7	36.264	14,2
2008	128.669	15,5	18.231	15,3	71.544	16,1	38.893	14,7
2009	142.099	16,9	8.174	6,6	91.995	20,5	41.930	15,6
2010	80.969	9,7	12.785	10,3	40.942	9,2	27.242	10,2
2011	75.342	8,9	7.829	6,2	38.649	8,6	28.864	10,6
2013	90.139	10,3	18.132	13,5	44.499	9,7	27.508	9,8

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013



Birgaitzeko beharra, dena den, 2005etik 2009ra bitartean detektatutako beharra baino txikiagoa da, eta Gipuzkoan, beheraka jarraitu du

2011tik 2013ra bitartean etxebizitzak birgaitzeko beharrak gora egin arren, kopuruak aurreko hamarkadako bigarren erdialdekoak baino askoz txikiagoak dira. 2013. urteko proportzioa (%10,3) 2005-2009 aldikoak baino dezente txikiagoa da. Izan ere, aldi horretan, EAEko familia-etxebizitzen %14-17 inguruk zuen birgaitzeko beharra.

Hala ere, bilakaerari dagokionez, esan beharra dago 2009. urtetik jaisten ari zela birgaitzeko beharra duten etxebizitzen ehunekoa, baina 2013. urtean, eten egin dela beheranzko joera hori. Bizkaian, datu horren minimoa (%8,6) 2011. urtean izan zen; 2013. urtean, ordea, 2010eko parera igo da aipatutako beharra duten etxebizitzen ehunekoa (%9,7). Arabako proportzioa (%13,5) aurreko hamarkadako urte batzuetan lurralde horretan izandako ehuneko batzuen parekoa da; 2005. eta 2007. urteetan, esaterako, antzeko zifrak edo txikiagoak izan ziren. Gipuzkoan soilik ez da igo beharra duten etxebizitzen ehunekoa: %9,8koa izan da lurralde horretan 2013an, minimoa 2005etik.

Etorkizunerako aukerak gero eta okerragoak dira, beharrari aurre egiteko ahalmena gero eta txikiagoa delako, eta lau urterako eskaera geldialdian dago 2010. urtetik

Esan bezala, gero eta behar handiagoa dago etxebizitzak birgaitzeko, baina bestalde, gero eta txikiagoa da behar horri aurre egiteko biztanleen ahalmena. Hala, 2013. urtean, etxebizitza birgaitzeko beharra zuten 90.139 familietatik %18,9k baino ezin zien lan horiei urtebeteko epean ekin. Proportzio hori izugarri jaitsi da 2011. urtetik, %32,2koa baitzen orduan.

Birgaitzeko lanak urtebetetik gorako epean hasteko aurreikuspena dutenen ehunekoa ere txikiagoa da. Lanei hurrengo bi urteetan helduko dietela aurreikusten duten familien proportzioa %53,7tik %37,7ra jaitsi da 2011tik 2013ra bitartean. Etxea epe ertainean birgaitzeko dutela uste dutenen ehunekoa soilik da aurreko urteetako ehunekoen antzekoa: 2013an, familien %50,2k adierazi zuen lau urteko epean heldu ahal izango zela birgaitzeko lanei. Dena den, ehuneko horrek argi eta garbi erakusten du familien jarduteko ahalmenaren adierazleek beheranzko joera dutela, 2011n %58,4koa baitzen proportzio hori.

Datu horiek guztiak kontuan izanik, bi alderdi garrantzitsu nabarmendu behar dira, birgaitzeko eskaera aztertu ahal izateko. Alde batetik, garbi ikusten da birgaitzeko beharra eskaera bihurtzeko familien ahalmenaren 2013ko adierazleak 2008-2013 aldiko minimoak direla. Eta, oro har, 2010eko zifrak baino txikiagoak direla azpimarratu behar da. Jaitsi egin da bai bi urterako eskaeraren aurreikuspena (%37,7koa 2013an, eta %39,2koa 2010ean) bai lau urterako eskaerarena (%50,2koa 2013an, eta %54,1koa 2010ean). Salbuespen bakarra urtebeterako aurreikuspenari dagokio: 2013ko proportzioa (%18,9) handiagoa izan da 2010ekoa baino (%14,7).

Eskaerari aurre egiteko ahalmena txikia da, esan bezala, nahiz eta beharrak gora egin 2011tik 2013ra bitartean. Eta horrek guztiak adierazten du eskaeraren egoera 2010eko



egoera okerraren antzekoa dela 2013an ere. Epe laburrera birgaitzeko eskaera, hain zuzen ere, jaitsi egin da 2011tik 2013ra bitartean, kasu batzuetan 2010eko mailetara jaitsi ere. Bi urterako aurreikuspenari dagokionez, eskaria 40.485 etxebizitzakoa zen 2011n, eta 33.958 etxebizitzakoa 2013an; beraz, jaitsi egin da eskari hori eta nabarmendu behar da 2013ko kopurua 2010eko minimoaren (31.753 etxebizitza) oso antzekoa dela (pixka bat handiagoa). Urtebeterako aurreikuspenari dagokionez, berriz, eskaria 24.724 etxebizitzakoa zen 2011n, eta 17.047 etxebizitzakoa 2013an: 2013ko kopurua 2011ko kopuruaren eta 2010eko minimoaren (11.934) tartekoa da.

Egoera zein den kontuan hartuta, ez dirudi merkatua nabarmen suspertuko denik epe ertainean. Izan ere, lau urtera etxebizitza birgaitzeko eskaera 87.321 etxebizitzakoa zen 2009an, eta 45.286 etxebizitzakoa 2013an. Eta azken datu hori 2010eko datuaren (43.787 etxebizitza) nahiz 2011ko datuaren (44.026 etxebizitza) oso antzekoa da.

2. taula

Etxebizitza birgaitzeko beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa, EAE. 2007-2013

(Balio absolutuak, eta ehunekoak, etxebizitza guztiekiko nahiz beharra duten etxebizitzekiko)

	2007		2008		2009		2010		2011		2013	
	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua
Beharra (*)	14,2	113.396	15,5	128.669	16,9	142.099	9,7	80.969	8,9	75.342	10,3	90.139
4 urterako eskaera (**)	63,7	72.194	61,6	79.273	61,5	87.321	54,1	43.787	58,4	44.026	50,2	45.286
2 urterako eskaera (**)	49,1	55.655	50,3	64.733	51,6	73.319	39,2	31.753	53,7	40.485	37,7	33.958
Urtebeterako eskaera (**)	26,7	30.270	26,6	34.265	26,4	37.474	14,7	11.934	32,2	24.274	18,9	17.047

(*) % etxe guztiekiko

(**) % beharra duten etxeekiko

Epe bakoitzerako eskaeraren zifrak epe laburragoetarako eskaerak ere hartzen ditu barne. Hots, 2 urterako eskaeraren zifrak urtebeterako eskaera ere hartzen du barne, eta 4 urterako eskaeraren zifrak, berriz, urtebeterako eta 2 urterako eskaerak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013


Birgaitzeko beharrak familia-etxebizitzaren elementu pribatiboekin loturik daude gehiago elementu komunekin baino

Etxebizitzetan egin beharreko birgaitze-lanen tipologiari dagokionez, ia etxebizitzaren erdietan (%49,8) etxebizitza barrutik hobetzeko beharra dute. Etxebizitzaren %31,8k etxebizitza barrutik nahiz eraikinaren eremu komunak birgaitzeko beharra du. Eta etxebizitzaren gainerako %18,4ak eraikinaren eremu komunak soilik birgaitzeko beharra du.

Bilakaerari dagokionez, alderdirik nabarmenena da elementu komunak nahiz pribatiboak berritzearekin loturiko birgaitze-prozesuen pixkanakako igoera. Izan ere, proportzioa %15 ingurukoa zen 2007an eta 2008an, eta %20tik gorakoa 2009tik aurrera; 2010etik 2013ra bitartean, zehazki, %31tik %32ra bitartekoa izan da.



Birgaitzeko beharra duten etxebizitzak, birgaikuntza-motaren arabera. EAE. 2013



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

3. taula

Birgaitzeko beharra duten etxebizitzaren birgaitze-mota, EAE. 2007-2013

(Etxe-kopuruak, eta ehunekoak, beharra duten etxebizitzekiko)

	2007		2008		2009		2010		2011		2013	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	113.396	100	128.669	100	142.100	100	80.969	100	75.342	100	90.139	100
Elementu pribatiboak	47.672	42,0	61.468	47,8	51.080	35,9	41.011	50,7	24.702	32,8	44.844	49,8
Elementu komunak	57.424	50,6	47.303	36,8	59.499	41,9	14.781	18,3	35.470	47,1	16.594	18,4
Elementu pribatiboak eta komunak	8.301	7,3	19.898	15,5	31.521	22,2	25.177	31,1	15.170	20,1	28.700	31,8

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

2. ETXEBIZITZA NAGUSIA ALDATZEKO BEHARRA

Etxebizitza aldatzeko beharra %62 igo da 2011tik 2013ra bitartean. Bizkaian izan da nabarmenena behar horren igoera; Gipuzkoan, berriz, txiki samarra izan da igoera, beste lurraldeetako datuen aldean.

2013. urtean, EAEko 61.621 familiak adierazi zuten etxebizitza aldatzeko beharra, guztien %7,1ek, hain zuzen ere. Datu hori 2011ko datuarekin (38.048 familia) alderatuz gero, etxebizitza aldatzeko beharra %62 igo dela ikusiko dugu. 2011. urtean, etxebizitza aldatzeko beharra adierazi zuten familiak guztien %4,5 baino ez ziren.

Beharraren joera, beraz, goranzkoa da, eta joera hori Bizkaian izan da nabarmenena. Lurralde horretan, 22.230 familia-etxebizitzak zuten aldatzeko beharra 2011. urtean, eta 41.283 etxebizitzak 2013an: igoera %85,7koa izan da. Eta behar horren pisu erlatiboa ere igo egin da: etxebizitza guztien %4,9koa izan zen 2011n, eta %9koa 2013an. EAEko lurraldeetatik, 2013an, Bizkaian izan da handiena etxebizitza aldatzeko beharra.




Arabian ere gora egin du beharrak 2013an: lurralde horretako 8.818 familiak adierazi zuten etxebizitza aldatzeko beharra, guztien %6,6k, hain zuzen ere. Eta igoera, zehazki, %33,6koa izan da. Izan ere, 2011n, beharra zuten familiak 6.601 ziren, guztien %5,2.

Nahiz eta Gipuzkoan ere gora egin duen etxebizitza aldatzeko beharrak, igoera txikiena izan da lurralde horretan. Gipuzkoan, 2011. urtean, 9.218 familiak zuten etxebizitza aldatzeko beharra (guztien %3,4k), eta 11.521 familiak 2013an (guztien %4,1ek). 2011tik 2013ra bitartean, horrenbestez, %25 igo da aipatutako beharra duten familien kopurua.

Datu horiek guztiek argi eta garbi erakusten dute 2005. urteaz geroztik, etxebizitza aldatzeko beharra handienetakoa izan dela 2013an, 2005, 2006, 2009 eta 2010eko zifrak baino handiagoa (%6,1-6,7), bai eta 2008ko eta 2011ko zifrak baino handiagoa ere (%4,5-4,9). 2005etik, 2007ko datua (%8,1) soilik izan da 2013koa (%7,1) baino handiagoa.

Bizkaiko 2013ko zifra (%9) 2005-2013 aldiko maximoa izan da, 2007ko eta 2009ko zifrak (%8-8,5) baino handiagoa. Arabako zifra ere (%6,6) 2010eko maximoatik (%6,9) gertu dago, eta 2007ko zifraren berdina da.

Gipuzkoako egoera, aldiz, oso desberdina da beste lurraldeen egoeren aldean. Izan ere, etxebizitza aldatzeko beharraren zifra txikienetakoa bat izan da Gipuzkoan 2005. urteaz geroztik. 2013ko zifra (%4,1) 2009ko zifraren antzekoa da, eta soilik 2011koa (%2,4) baino handiagoa; gainera, esan beharra dago 2005-2007 aldiko eta 2010eko zifrak (%6tik gorakoak) baino askoz txikiagoa dela.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013



Etxebizitza aldatzeko beharraren kuantifikazioa, lurralde historikoka. EAE. 2005-2013

(Kopuru absolutuak eta etxe guztiekiko ehunekoak)

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kopurua	% etxe guztiekiko	Kopurua	% etxe guztiekiko	Kop.	% etxe guztiekiko	Kop.	% etxe guztiekiko
2005	49.559	6,4	6.061	5,5	26.260	6,3	17.173	6,9
2006	47.851	6,1	6.304	5,7	26.169	6,2	15.382	6,1
2007	64.393	8,1	7.559	6,6	34.255	8,0	22.584	8,8
2008	40.894	4,9	6.813	5,7	21.714	4,9	12.367	4,7
2009	56.652	6,7	7.676	6,2	37.936	8,5	11.040	4,1
2010	56.397	6,7	8.512	6,9	27.294	6,1	20.591	7,7
2011	38.048	4,5	6.601	5,2	22.230	4,9	9.218	3,4
2013	61.621	7,1	8.818	6,6	41.283	9,0	11.521	4,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

5. taula

Eskuratzeko, aldatzeko eta birgaitzeko beharrak, lurralde historikoka. 2013

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)

ETXEBIZITZA ESKAEREI BURUZKO	BEHARREI INKESTA (EAE)	ETA	2013	Aldaketa 2011ko datuekiko	
				GUZTIRA	%
EAE	Eskuratzea		59.318	-17.042	-22,3
	Aldatzea		61.621	23.573	62,0
	Birgaitzea		90.139	14.797	19,6
	Etxebizitzak		872.500	23.406	2,8
Araba	Eskuratzea		6.666	-1.640	-19,7
	Aldatzea		8.818	2.217	33,6
	Birgaitzea		18.132	10.303	131,6
	Etxebizitzak		134.299	8.435	6,7
Bizkaia	Eskuratzea		29.945	-16.863	-36,0
	Aldatzea		41.283	19.053	85,7
	Birgaitzea		44.499	5.850	15,1
	Etxebizitzak		457.401	5.511	1,2
Gipuzkoa	Eskuratzea		22.707	1.461	6,9
	Aldatzea		11.521	2.303	25,0
	Birgaitzea		27.508	-1.356	-4,7
	Etxebizitzak		280.800	9.459	3,5

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

Laburbilduz, 2013. urtean, etxebizitza aldatzeko beharraren ehunekoa Gipuzkoan EAEko beste bi lurraldeetan baino askoz txikiagoa izan dela nabarmendu behar da (%4,1 Gipuzkoan, %6,6 Araban, eta %9 Bizkaian). Horrez gain, Gipuzkoako adierazlea finantza-krisialdiaren aurretiko datuak baino askoz txikiagoa da, Araban eta Bizkaian ez



bezala. Bi lurralde horietan, izan ere, behar-maila 2005-2007 aldikoaren parekoa izan da 2013an.

Birgaitzeko beharrari dagokionez ez bezala, etxebizitza aldatzeari dagokionez, beharraren igoerak eskaera zifra absolututan suspertu egin dela adierazten du, epe ertainean, batik bat

Birgaitzeko beharraren kasuan gertatu bezala, esan beharra dago 2009. urtetik jaisten ari zela aldatzeko beharra duten etxebizitzaren ehunekoa, baina 2013. urtean, eten egin dela beheranzko joera hori. Oraingoan ere, badirudi bilakaera hori beharrari aurre egiteko ahalmena duten familien ehunekoaren jaitsierarekin lotuta dagoela, a priori; epe laburreko ahalmenaren jaitsierarekin, batez ere.

Esate baterako, 2013an etxebizitza aldatzeko beharra zuten 61.621 familietatik, %20,5ek baino ez zuen adierazi hurrengo urtean aldaketari aurre egiteko aukera ikusten zuela; datu hori %24,9koa izan zen 2011. urtean. Aldaketa bi urteko epean egitea aurreikusten dutenen proportzioa %38,6tik %33,7ra jaitsi zen 2011tik 2013ra bitartean. Aldaketa lau urteko epean egitea aurreikusten dutenen proportzioak soilik dira nahiko antzekoak: %49,5 2013an, eta %50,5 2011n.

Baina bada alderdi bat etxebizitza aldatzeko beharraren joera eta birgaitzeko beharraren joera bereizten dituen. Hauxe: etxebizitza aldatzeko beharra duten familien igoera handia izan arren (%4,5etik %7,1era 2011tik 2013ra), behar horri aurre egiteko ahalmenaren jaitsiera erlatiboa txikiagoa izan da. Zifra absolutuei erreparatuz gero, 2013an eskaera suspertu egin dela ikusten da, bai epe laburrerako eskaera, bai epe luzerako eskaera.

Urtebeterako eskaera, adibidez, 9.486 etxebizitzakoa zen 2011n, eta 12.628 etxebizitzakoa 2013an; hau da, igoera %33,1ekoa izan zen. Suspertze horrek sendotu egin du 2010etik 2011ra bitartean detektatutako goranzko dinamika: beharraren eta eskaeraren adierazleak 2007ko adierazleen antzekoak dira (61.621 familiak zuten beharra 2013an, eta 64.393 familiak 2007an; eta urtebeterako eskaera %20,5ekoa eta %21,4koa, hurrenez hurren). Dena den, 2013ko eskaera 2007koa (13.778 etxebizitza) baino %8,3 txikiagoa da, eta 2009koa (14.733 etxebizitza) baino %14,3 txikiagoa.

Bi urterako eskaerari dagokionez, berriz, 14.703 etxebizitzakoa zen 2011. urtean, eta 20.744 etxebizitzakoa 2013an. Aldi horretan, lau urterako eskaera 19.196 etxebizitzatik 30.505 etxebizitzara igo zen; hots, igoera %58,9koa izan zen. Igoera hori kualitatibotzat jo daiteke, batetik, suspertzeko aurreikuspenaren intentsitateagatik, eta bestetik, 2009tik (32.460 etxebizitza) izandako jaitsiera handi eta jarraituaren noranzko-aldaketagatik. 2013an, gainera, lau urterako merkatuaren aurreikuspena 2009ko eskaera-mailaren %94koa izan da.



6. taula

Etxebizitza aldatzeko beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa, EAE. 2007-2013

(Balio absolutuak, eta ehunekoak, etxebizitza guztiekiko nahiz beharra duten etxebizitzekiko)


	2007		2008		2009		2010		2011		2013	
	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua
Beharra (*)	8,1	64.393	4,9	40.894	6,7	56.652	6,7	56.397	4,5	38.048	7,1	61.621
4 urterako eskaera (**)	47,2	30.406	48,1	19.678	57,3	32.460	45,8	25.810	50,5	19.196	49,5	30.505
2 urterako eskaera (**)	28,7	18.470	28,8	11.769	46,4	26.274	31,3	17.633	38,6	14.703	33,7	20.744
Urtebeterako eskaera (**)	21,4	13.778	20,1	8.207	26,0	14.733	14,7	8.290	24,9	9.486	20,5	12.628

(*) % etxe guztiekiko

(**) % beharra duten etxeekiko

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familietatik, %33,1ek etxearen neurri desegokiagatik aldatu nahi du. %17,2k, alokairu merkeagoa nahi duelako. %14,7k, berriz, beste arrazoiren batengatik du etxebizitza aldatzeko beharra (etxebizitzak irisgarritasun-gabeziak dituelako edo familiako kontu espezifikoengatik, batik bat); eta %11,1ek, igogailurik ez duelako. Gainerako aukerak hartu dituztenen proportzioak %10etik beherakoak dira.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013



Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek 2013an adierazitako bi arrazoi nagusiek goranzko joera erakutsi dute azken urteetan. Etxearen neurri desegokia etxebizitza aldatzeko adierazitako lehen arrazoa da 2007tik, eta 2013ko proportzioa (%33,1) 2007ko eta 2008ko proportzioak (%30 ingurukoak) baino handiagoa da. Alokairu merkeagoa nahi dutenen igoera are garbiagoa da. 2010. urtera arte, proportzioak %12tik beherakoak ziren, baina %15,5koa izan zen 2011. urtean, eta %17,2koa 2013an.

Alokairu merkeagoa nahi dutenen proportzioa igo egin da, esan bezala, eta aldi berean, jaitsi egin da jabetzako etxebizitza nahi dutenen pisu erlatiboa; 2008an, etxebizitza aldatzeko beharra zutenen %15,4k adierazi zuen azken arrazoi hori, eta 2013an, aldiz, %4k baino ez. Arrazoi gisa igogailurik ez izatea adierazi dutenen pisu erlatiboa ere jaitsi egin da. Beharra zuten familien %20,7k eman zuen arrazoi hori 2007an, eta %11,1ek soilik 2013an.

7. taula

Etxebizitza aldatzeko beharraren arrazoiak, EAE. 2007-2013

(Etxe-kopuruak, eta ehunekoak, beharra duten etxebizitzekiko)

	2007		2008		2009		2010		2011		2013	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	113.396	100	40.894	100	56.652	100	56.397	100	38.048	100	61.621	100
Neurri desegokia (txikia)	33.633	29,7	12.255	30,0	14.184	25,0	18.017	31,9	10.281	27,0	20.390	33,1
Egoera txarra	8.278	7,3	6.773	16,6	4.474	7,9	7.878	14,0	3.471	9,1	5.102	8,3
Igogailurik ez	23.428	20,7	5.926	14,5	7.958	14,0	7.818	13,9	5.974	15,7	6.847	11,1
Kokapen txarra	9.525	8,4	2.596	6,3	3.028	5,3	2.781	4,9	2.657	7,0	4.069	6,6
Jabetzako etxebizitza nahi du	9.525	8,4	6.282	15,4	5.905	10,4	4.865	8,6	2.232	5,9	2.446	4,0
Dibortzioa, banantzea	680	0,6	891	2,2	1.264	2,2	1.623	2,9	1.227	3,2	1.105	1,8
Lantokitik hurbil egotea	567	0,5	-	-	470	0,8	2.229	4,0	238	0,6	2.033	3,3
Alokairu merkeagoa nahi du	11.782	10,4	2.160	5,3	6.628	11,7	3.171	5,6	5.897	15,5	10.576	17,2
Beste arrazoiren bat	15.977	14,1	4.011	9,8	12.742	22,5	8.014	14,2	6.071	16,0	9.054	14,7

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

3. LEHENENGO ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA

Diru-sarrera propiorik gabeko pertsonen kopuruak gora egin du; lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharrak, aldiz, behera egin du nabarmen, Gipuzkoan izan ezik.

Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 urtetik 44 urtera bitartekoek lehenengo etxebizitza eskuratzeko duten beharra aztertzean, behar hori 65.346 pertsonak adierazi dutela ikusi da, eta gainera, badituztela horretarako diru-sarrera propioak. Datu hori 2011ko datuarekin alderatuz gero (88.128 pertsona), kopurua %25,9 jaitsi dela ikusten da. Eta 2010eko datuarekin alderatuz gero, berriz, jaitziera %39,6koa izan da (108.131 pertsona 2010ean).



Aipatutako 65.346 pertsona horiek gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 urtetik 44 urtera bitarteko 267.256 pertsonen %24,5 dira¹. 25 urtetik beherakoen artean, %7,7k baino ez du adierazi behar hori; 25 urtetik 34 urtera bitarteko artean, ordea, %36,7k adierazi du; eta 35 urtetik 44 urtera bitarteko artean, %33k. Baina esan beharra dago azken talde horretan jada emantzipatuta daudela gehienak: gurasoekin bizi diren 35 urtetik 44 urtera bitarteko 27.474 pertsonak adin-talde horretako guztien %7,6 baino ez dira. 25 urtetik 34 urtera bitarteko artean, aldiz, %49,8koa da proportzio hori.

Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren eta diru-sarrera edo errenta propioak dituzten 18 urtetik 44 urtera bitarteko 126.136 pertsonetatik, beharra dutenak %51,8 dira; hots, emantzipazio-beharra handia da. 25 urtetik 44 urtera bitartekoetatik, %55 inguru dira lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra adierazi dutenak; 18 urtetik 24 urtera bitartekoetatik, aitzitik, %34,7k soilik adierazi du behar hori. Sexuari dagokionez, emantzipazio-beharra emakumezkoen artean da handiena (%54,1, eta gizonezkoen artean, %49,8).

8. taula

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa, adin-taldean eta sexuaren arabera. EAE. 2013

(Balio absolutuak, eta ehunekoak, pertsona guztiekiko nahiz beharra duten pertsonetikiko)

	2013							
	Etxebizitza eskuratzeko beharra dutenak		18-44 urtekoak guztira		Gurasoekin bizi dira		Diru-sarrera edo errenta propioak dituzte	
	Kopurua	% b.	Kop.	Beharraren % guztiekiko	Kop.	Beharraren % guztiekiko	Kop.	Beharraren % guztiekiko
Guztira	65.346	100,0	749.081	8,7	267.256	24,5	126.136	51,8
18-24 urte	8.431	12,9	124.004	6,8	109.508	7,7	24.291	34,7
25-34 urte	47.861	73,2	262.311	18,2	130.274	36,7	85.368	56,1
35-44 urte	9.053	13,9	362.766	2,5	27.474	33,0	16.477	54,9
Emakumeak	31.777	48,6	365.411	8,7	124.124	25,6	58.719	54,1
Gizonak	33.569	51,4	383.670	8,7	143.132	23,5	67.416	49,8

¹ 18 urtetik 44 urtera bitarteko EAEko biztanle guztiak kontuan hartuta, %8,7koa da proportzioa.



9. taula

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa, adin-taldeen eta sexuaren arabera. EAE. 2011

	2011							
	Etxebizitza eskuratzeko beharra dutenak		18-44 urtekoak guztira		Gurasoekin bizi dira		Diru-sarrera edo errenta propioak dituzte	
	Kopurua	% b.	Kop.	Beharraren % guztiekiko	Kop.	Beharraren % guztiekiko	Kop.	Beharraren % guztiekiko
Guztira	88.128	100,0	776.012	11,4	283.185	31,1	135.304	65,1
18-24 urte	12.964	14,7	128.020	10,1	111.664	11,6	20.246	64,0
25-34 urte	63.342	71,9	288.407	22,0	143.898	44,0	92.644	68,4
35-44 urte	11.821	13,4	359.585	3,3	27.623	42,8	22.414	52,7
Emakumeak	42.420	48,1	377.730	11,2	131.280	32,3	64.403	65,9
Gizonak	45.708	51,9	398.282	11,5	151.905	30,1	70.901	64,5

10. taula

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa, adin-taldeen eta sexuaren arabera. EAE. 2010


	2010							
	Etxebizitza eskuratzeko beharra dutenak		18-44 urtekoak guztira		Gurasoekin bizi dira		Diru-sarrera edo errenta propioak dituzte	
	Kopurua	% b.	Kop.	Beharraren % guztiekiko	Kop.	Beharraren % guztiekiko	Kop.	Beharraren % guztiekiko
Guztira	108.131	100,0	775.705	13,9	302.733	35,7	166.347	65,0
18-24 urte	21.379	19,8	127.188	16,8	112.524	19,0	30.631	69,8
25-34 urte	72.038	66,6	295.586	24,4	160.890	44,8	113.202	63,6
35-44 urte	14.714	13,6	352.931	4,2	29.319	50,2	22.514	65,4
Emakumeak	48.029	44,4	377.303	12,7	141.126	34,0	66.115	72,6
Gizonak	60.102	55,6	398.402	15,1	161.607	37,2	100.232	60,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

Atal honetan, bereziki nabarmendu behar da lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharraren jaitsiera estu-estu lotuta dagoela diru-sarrerarik gabe daudenen egoera larriekin, gero eta gehiago baitira. Azpimarratzekoa da, zehazki, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 urtetik 44 urtera bitartekoen %52,8k ez duela diru-sarrera propiorik. Biztanle-talde hori ez da kontuan hartzen lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharrarekin loturiko kalkuluak egiteko, ezin baitute aipatutakoa finantzatu. Horrez gain, beste %10,2k diru-sarrera urriak edo ezegonkorrak ditu, eta horrek mugatu egiten du lehenengo etxebizitza eskuratzeko proiektua.



18 urtetik 44 urtera bitarteko enplegu gainerako %12,5etik, %5,3k adierazi du ez duela emantzipatzeko beharrik edo ez duela pentsatu hori egiterik, eta beste %3,8 beste egoera batzuetan dago. Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 urtetik 44 urtera bitarteko pertsonen %3,4k soilik du jada etxebizitza bat.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra 2010etik 2013ra %40 inguru zergatik jaitsi den aztertzean, zenbait alderdi garrantzitsu bereizten dira. Lehenengo alderdia demografikoa da erabat: jaitsi egin da gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 urtetik 44 urtera bitarteko kopurua. Pertsona horiek 302.733 ziren 2010. urtean, eta 267.256 2013an; beraz, jaitsiera %11,7koa izan da.

Funtsezko bigarren alderdia krisiaren ondorioekin dago lotuta. Esan bezala, 2010etik 2013ra bitartean, jaitsi egin da lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 urtetik 44 urtera bitarteko pertsonen ehunekoa (%35,7tik %24,5era), eta aldi berean, igo egin da talde horretan diru-sarrerarik ez dutenen ehunekoa (%45,1etik %52,8ra). Bada, badirudi aipatutako jaitsiera hori zuzen-zuzenean lotuta dagoela diru-sarrerarik gabekoen igoerarekin. Eta diru-sarrerarik ez duten edo diru-sarrera urriak edo ezegonkorak dituzten pertsonak guztira kontuan hartuz gero, igoera are garbiagoa da: aztertutako populazioaren %48,2 zen 2010. urtean, eta %63, berriz, 2013an. Zifra absolututan, 145.741 pertsona zeuden egoera ekonomiko larri horretan (lehenengo etxebizitza eskuratzeari aurre egin ahal izateko) 2010. urtean, eta 168.407 pertsona 2013an.



Kontrako aldean, beren etxebizitza izan arren familiako etxean bizi direnen kopurua nabarmen jaitsi da 2013an. 2013. urtean egoera horretan zeudenen kopurua (9.206 pertsona) 2010eko eta 2011ko kopuruen erdia baino gutxiago da (23.667 eta 21.934 pertsona, hurrenez hurren).


11. taula

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharrarekiko egoera, EAE. 2010-2013

(Etxe-kopuruak, eta ehunekoak, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 urtetik 44ra arteko pertsonetikiko)

	2010		2011		2013	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	302.733	100	283.185	100	267.256	100
Etxebizitza eskuratzeko beharra dutenak	108.131	35,7	88.128	31,1	65.346	24,5
Diru-sarrerarik gabeko pertsonak	136.386	45,1	147.881	52,2	141.120	52,8
Diru-sarrera urriak edo ezegonkorrak	9.355	3,1	14.446	5,1	27.287	10,2
Badu etxebizitza	23.667	7,8	21.934	7,7	9.206	3,4
Beharrik ez	22.833	7,5	7.815	2,8	14.100	5,3
Beste egoera batzuk	2.361	0,8	2.981	1,1	10.197	3,8

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013




Lehenengo etxebizitza bakarrik edo bikotekidearekin eskuratu nahi den aztertuta, EBEIren bidez kalkulatu da zenbat etxebizitza behar diren 18 urtetik 44 urtera bitartekoen beharretarako. EAEn, 59.318 etxebizitzakoa zen kopuru hori 2013. urtean, eta 76.360 etxebizitzakoa 2011n; hots, jaitsiera %22,3koa izan da. Etxebizitza nagusi guztiekiko, lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra jaitsi egin da 2011tik 2013ra bitartean; %9tik %6,8ra, hain zuzen ere. Eta 2013ko ehuneko hori 2005-2013 aldiko txikiena da; aurretik, 2008ko eta 2011ko ehunekoak izan ziren txikienak (%9).

Lurraldeei dagokienez, Bizkaian eta Araban jaitsi da lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra. Bizkaian, 18 urtetik 44 urtera bitartekoen 29.945 etxebizitza behar zituzten 2013. urtean, 2011n baino 16.863 etxebizitza gutxiago (%36ko jaitsiera). Lurralde horretan, lehenengo etxebizitza eskuratu nahi dutenak etxebizitza nagusi guztien %6,5 dira, eta ehuneko hori 2005-2011 aldiko minimoa baino txikiagoa da (minimo hori, %8,8, 2008an izan zen).

18 urtetik 44 urtera bitarteko arabarren 2013ko eskaera ere txikiagoa izan da 2011koa baino: 8.306 etxebizitzakoa izan zen 2011. urtean, eta 6.666 etxebizitzakoa 2013an (%19,7ko jaitsiera). Lurralde horretan, berriz, lehenengo etxebizitza eskuratzeko behar direnak etxebizitza nagusi guztien %5 dira. 2005etik 2010era bitartean, minimoa (%9,2) 2008an izan zen, eta 2011. urtean ere jaitsiera handia izan zen (%6,6).

Arabian eta Bizkaian ez bezala, Gipuzkoan pixka bat igo da lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra 18 urtetik 44 urtera bitartekoen artean. Beharra 21.246 etxebizitzakoa izan zen 2011n, eta 22.707 etxebizitzakoa 2013an; hau da, igoera %6,9koa izan da. Lurralde horretan, lehenengo etxebizitza eskuratzeko behar direnak etxebizitza nagusi guztien %8,1 dira, 2011ko zifra (%7,8) baino handiagoa.

Dena den, Gipuzkoan ere 2010-2011 aldiaren aurretik izandako minimoa baino dezente txikiagoa da 2013ko ehuneko hori; izan ere, 2005. urteaz geroztik, minimoa %9,2koa izan zen, 2008an.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

12. taula

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharraren kuantifikazioa, lurralde historikoka. EAE. 2005-2013

(Kopuru absolutuak eta etxe guztiekiko ehunekoak)

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kopurua	% etxe guztiekiko	Kopurua	% etxe guztiekiko	Kop.	% etxe guztiekiko	Kop.	% etxe guztiekiko
2005	90.815	11,7	13.217	12,1	49.348	11,8	28.290	11,4
2006	92.788	11,8	13.156	11,8	48.613	11,5	31.019	12,3
2007	82.891	10,4	12.424	10,9	46.299	10,8	24.167	9,4
2008	74.461	9,0	10.992	9,2	39.052	8,8	24.417	9,2
2009	110.677	13,2	11.476	9,3	66.418	14,8	32.783	12,2
2010	97.800	11,7	15.246	12,3	54.157	12,1	28.397	10,6
2011	76.360	9,0	8.306	6,6	46.808	10,4	21.246	7,8
2013	59.318	6,8	6.666	5,0	29.945	6,5	22.707	8,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

EAEko datuak oro har hartuta, argi eta garbi ikusten da nabarmen jaitsi dela lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra dutenen ehunekoa. Familia-etxebizitza guztiekiko ehunekoei dagokienez, 2013ko datua (%6,8) 2008ko eta 2011ko datua (%9, minimoa) baino askoz txikiagoa da. Eta 2007ko eta 2006ko datuekiko aldea handiagoa da (%10,4 eta %11,8), eta are handiagoa 2009ko datuarekiko (%12tik gorakoa).

Eragile bakarra ez izan arren, krisialdi ekonomikoak eragin handia izan du etxebizitzaren beharraren bilakaeran. Beharra %9tik %13,2ra igo zen 2008tik 2009ra,



baina gero, krisiak beharraren adierazlearen jaitsiera etengabea eragin du (%11,7 2010ean; %9 2011n; eta %6,8 2013an).

Epe laburrean benetako eskaera pixka bat igo arren, beheranzko joerak bere horretan jarraitzen du epe ertainera eta epe luzera begira

Aurretik azaldutako datuak ikusirik a priori paradoxikoa izan arren, etxebizitza aldatzeko beharraren igoerak, urtebeterako eskaerari dagokionez, eragina izan du lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharrean. Horrenbestez, lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten 59.318 familietatik, %9,9k adierazi du hurrengo urtean horri aurre egiteko aukera izango duela; 2011.urtean, aldiz, %6,3koa izan zen proportzio hori. Kopuru absolututan, eskaera 4.786 etxebizitzatik 5.843 etxebizitzara igo zen 2011tik 2013ra bitartean.

Baina igoera horrek ez du lehenengo etxebizitzarekin loturiko eskaeraren azken jaitsiera ezkutatu behar. Urtebeterako epean ustez eskuratuko diren 5.843 etxebizitza horiek (2013an) 2009an eta 2010ean eskatutako 20.000tik gorako etxebizitzen %30 baino gutxiago dira. Esan bezala, 2013an, lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra zutenen %9,9k soilik zuen horri aurre egiteko aukera; 2009an eta 2010ean, aldiz, %21 ingurukoa izan zen proportzio hori.

Bestalde, lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra izan eta horri aurre egiteko aukera hurrengo bi edo lau urteetan izango dutenen proportzioa ez da asko aldatu aurreko urteekiko; hala ere, epe ertaineko eta epe luzeko eskaerak finantza-krisialdiaren ondorengo aldirako aurreikusitako beharraren murrizketa handiaren mende daude.

Lehenengo etxebizitza bi urteko epean eskuratzeari aurreikusten dutenen kopurua jatsi egin da urtero 2009tik. Hona hemen datuak: 42.215 2009an, 35.843 2010ean, 25.535 2011n eta 21.111 2013an. Azken dinamikak 2009-2011 aldiko jaitsiera-erritmoa moteltzeko baino ez du balio izan.

Lehenengo etxebizitza lau urteko epean eskuratzeari dagokionez, eskaera 57.091 etxebizitzatik 63.254 etxebizitzara igo zen 2009tik 2010era bitartean, baina gero, jaitsiera oso handia izan zen 2011n (45.288). Eta joera horrek bere horretan jarraitu du 2013ra arte (33.954 etxebizitza 2013an). Epe ertainari eta epe luzeari begira, beraz, lehenengo etxebizitza eskuratzeko eskaeraren faserik larriena izan da 2013an EAEn.



13. taula

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa, EAE. 2007-2013

(Kopuru absolutuak eta etxe guztiekiko ehunekoak)

	2007		2008		2009		2010		2011		2013	
	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua
Beharra (*)	10,4	82.891	9,0	74.461	13,2	110.677	11,7	97.800	9,0	76.360	6,8	59.318
4 urterako eskaera (**)	54,4	45.073	68,4	50.954	51,6	57.091	64,7	63.254	59,3	45.288	57,2	33.954
2 urterako eskaera (**)	26,2	21.708	32,7	24.378	38,1	42.215	36,6	35.843	33,4	25.535	35,6	21.111
Urtebeterako eskaera (**)	18,5	15.298	20,9	15.547	20,5	22.648	21,2	20.746	6,3	4.786	9,9	5.843

(*) % etxe guztiekiko

(**) % beharra duten etxeekiko

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

Lehenengo etxebizitzaren lau eskatzaitetik ia hiruk (%74,7) emandako arrazoi nagusia familiatik emantzipatu nahia da; %22,2ren arrazoi nagusia, berriz, bikotekidearekin bizitzea edo ezkontzea izan da. Eta gainerako %3ak lan-arrazoiak direla eta lekuz aldatu beharra eta bestelako arrazoi batzuk adierazi ditu.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

2010-2013 aldian lehenengo etxebizitzaren beharra hainbeste jaisteak garbi erakusten du zer eragin izan duen krisi ekonomikoak herritarren emantzipazio-prozesuetan. Aldi horretan, hain zuzen ere, 104.779tik 63.335era jaitsi da lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra izan (dela ezkontzeko edo bikotekidearekin bizitzeko dela independizatzeke) eta horri aurre egiteko diru-sarrerak dituztenen kopurua.



2011. urtera arte ez bezala, 2011tik 2013ra bitartean, krisi ekonomikoak nork bere familia osatzeko emantzipazio-proiektuekin loturiko beharraren jaitsiera ekarri du berekin, batik bat. Esate baterako, emantzipazio-behar orokorre dagokienez, beharraren batez besteko jaitsiera $-17,3\%$ koa izan zen 2010etik 2011ra, eta $-14,5\%$ koa 2011tik 2013ra. Baina azken aldi horretan, aldaketa handia izan da lehenengo etxebizitza bikotekidearekin bizitzeko edo ezkontzeko nahi dutenen dinamikan. 2010etik 2011ra, 25.303tik 29.369ra igo zen lehenengo etxebizitza bikotekidearekin bizitzeko edo ezkontzeko nahi zutenen kopurua, baina 2013. urtean, 14.519koa baino ez zen izan kopuru hori; hots, jaitsiera $50,6\%$ koa izan zen.

Jaitsiera hori are deigarriagoa da kualitatiboki, kontuan hartzen badugu EAEn lehenengo etxebizitza bikotekidearekin bizitzeko edo ezkontzeko nahi zutenak 20.000 baino gutxiago zirela 2013an, eta hori ez dela beste inoiz gertatu 2007. urtetik.

14. taula

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoa, EAE. 2007-2013

(Pertsona-kopuruak, eta ehunekoak, beharra duten pertsonetikiko)

	2007		2008		2009		2010		2011		2013	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Eskuratzeko beharra	92.365	100	91.353	100	125.514	100	108.131	100	88.128	100	65.346	100
Bikotekidearekin bizitzea / ezkontzea	21.115	22,9	25.031	27,4	31.630	25,2	25.303	23,4	29.369	33,3	14.519	22,2
Independizatzea	70.253	76,1	63.216	69,2	90.119	71,8	79.476	73,5	57.264	65	48.816	74,7
Bestelakoak	998	1,1	3.106	3,4	3.765	3	3.352	3,1	1.494	1,7	2.010	3,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

Lehenengo etxebizitzaren eskatzaileen artean, gehiago dira etxea alokairuan nahi dutenak (%38,7) jabetzako etxea nahi dutenak baino (%36,7)

Lehenengo etxebizitzaren eskatzaileen profilari dagokionez, gehienak ($73,2\%$) 25 urtetik 34 urtera bitartekoak dira; $13,9\%$, 35 urtetik 44 urtera bitartekoak; eta $12,9\%$, berriz, 18 urtetik 24 urtera bitartekoak. Bestalde, eskatzaileen $51,4\%$ gizona da, eta $48,6\%$, emakumea.

Ikasketa-mailari dagokionez, eskatzaileen $45,5\%$ unibertsitate-ikasketak ditu, eta $32,5\%$, lanbide-ikasketak. Gutxiago dira lehen mailako ikasketak dituztenak ($11,4\%$) eta bigarren mailakoak dituztenak ($10,6\%$).

Lehenengo etxebizitzaren eskatzaileen $44,1\%$ ek besteren kontura kontratu finko batekin egiten du lan, eta $36,8\%$ ek, aldi baterako kontratua du. Eskatzaileen 11% bere kontura egiten du lan; eta gainerako kategorietan, proportzioak 10% etik beherakoak dira.




Edukitze-erregimenari dagokionez, 2013an, lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 urtetik 44 urtera bitartekoen %38,7k nahiago du etxea alokairuan hartu; %36,7k, berriz, jabetzako etxea nahiago du. Gainerako %24,6ari berdin zaio bata zein bestea. Datu horiek 2011ko datuekin alderatuz gero, jabetzako etxea aukeratu dutenen ehunekoa nabarmen jaitsi dela ikusten da; %52tik %36,7ra, hain zuzen ere.

Etxebizitzaren ezaugarriei dagokienez, eskatzaile gehienei berdin zaie etxea berria edo erabilia izatea (%69,5); %18,6k nahiago du etxe berria; eta %9,5ek, berriz, erabilia.

Eta neurriari dagokionez, neurri txikiak dira gehien aukeratutakoak. Lehenengo etxebizitzaren eskatzaileen %30,1ek 61-75 m²-ko etxeak aukeratu ditu, eta %28,4k, 60 m² baino gutxiagoak. 76-90 m²-ko etxeak, berriz, eskatzaileen %26,4k aukeratu ditu.

Behar den 1. etxebizitzaren ezaugarriak eta eskatzaileen profila.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011. %



(*)%100a osatu arte falta daitekeen proportzioa 'Ez daki-Ez du erantzun' aukerari dagokio.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko 2013ko Inkesta

Bilakaerari dagokionez, eskatutako etxebizitzaren ezaugarrietan izandako aldaketa nagusia jabetzako etxebizitzaren eskaeraren jaitsiera izan da: 2007an, eskatzaileen %67,8k aukeratu zuen, eta 2013an, %36,7k baino ez. Alokairuko etxea aukeratu dutenen proportzioa, aldiz, %8,3tik %38,7ra igo da 2007tik 2013ra bitartean.



Eskatutako azalerari buruzko datuetan ikusten da 2009an edo 2011n aukeratutako neurriak baino neurri txikiagoak aukeratu dituztela eskatzaileek 2013an; dena den, joera beste urte batzuetako joeraren antzekoa da. Adibidez, 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2013an, kategoriarik aukeratuena 61-75 m²-koa izan zen, eta 2011. urtean, berriz, proportzioan gehiago izan ziren 76-90 m²-ko etxeak aukeratu zituztenak.

15. taula

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra dutenek eskatutako etxearen ezaugarriak, EAE. 2007-2013

(Ehunekoak, beharra duten etxebizitzekiko)

	2007		2008		2009		2010		2011		2013	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Eskuratzeko beharra	82.891	100	74.461	100	110.676	100	97.800	100	76.360	100	59.318	100
Egoera												
Berria	19.396	23,4	13.031	17,5	21.072	19,0	21.034	21,5	18.583	24,3	11.019	18,6
Erabilia	4.476	5,4	2.274	3,1	6.816	6,2	8.432	8,6	1.742	2,3	5.661	9,5
Berria zein erabilia	58.024	70,0	58.725	78,9	79.970	72,3	66.845	68,3	55.307	72,4	41.215	69,5
ED/EDE	995	1,2	430	0,6	2.818	2,5	1.489	1,5	727	1,0	1.422	2,4
Azalera erabilgarria												
60 m ² baino gutxiago	23.732	28,6	27.503	36,9	13.532	12,2	28.141	28,8	15.314	20,1	16.828	28,4
61-75 m ²	28.216	34,0	28.595	38,4	48.052	43,4	32.873	33,6	27.158	35,6	17.882	30,1
76-90 m ²	21.908	26,4	14.506	19,5	32.881	29,7	25.641	26,2	30.355	39,8	15.653	26,4
91-120 m ²	2.570	3,1	709	1,0	8.309	7,5	2.748	2,8	1.768	2,3	4.520	7,6
ED/EDE	6.465	7,8	3.148	4,2	7.903	7,1	8.397	8,6	1.764	2,3	4.436	7,5
Batez besteko azalera (m²)	67,8		64,1		73,6		67,3		71,2		69,8	
Edukitze-erregimena												
Jabetza	56.200	67,8	44.373	59,6	65.835	59,5	50.486	51,6	39.717	52,0	21.796	36,7
Alokairua	6.880	8,3	7.331	9,8	18.136	16,4	22.703	23,2	13.566	17,8	22.940	38,7
Bata zein bestea	19.811	23,9	22.757	30,6	26.705	24,1	24.611	25,2	23.076	30,2	14.582	24,6

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra dutenen ezaugarri soziodemografikoak aztertzean, 18-24 urtekoen proportzioa azken urteetan pixkanaka jaisten ari dela ikusten da; hain zuzen ere, lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra zutenen %30,2 ziren 2007. urtean, eta %12,9 baino ez 2013an. 25-34 urtekoak, ordea, %55 baino gutxiago ziren 2007an eta 2008an, eta %70 baino gehiago 2013an.

Bestalde, murrizten ari da gizonen eta emakumeen ehuneko arteko aldea. Esate baterako, emakumeen proportzioa %45 baino txikiagoa izan zen 2010era arte, eta %48 baino handiagoa izan da 2011n eta 2013an.

Lehenengo etxebizitzaren eskatzaileen ikasketak-mailari dagokionez, pixka bat igo da unibertsitate-ikasketak dituztenen pisu erlatiboa: %42 inguru edo gutxiago ziren 2010era arte, eta %45 baino gehiago 2011n eta 2013an. Lanbide-ikasketak eta unibertsitate ikasketak dituztenak, oro har, 2013ko eskatzaileen %78 dira.



Lan-egoerari erreparatuz gero, daturik nabarmenena kontratu finkoa duten landunen pisu erlatiboaren jaitsiera da. Lehenengo etxebizitza behar zutenen %44,1 ziren 2013an, eta kontuan izanik proportzio hori %50 ingurukoa edo hortik gorakoa zela 2010era arte, jaitsiera nabarmena dela esan daiteke.

16. taula
**Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra dutenen ezaugarri
 soziodemografikoak, EAE. 2007-2013**

(Ehunekoak, beharra duten pertsonetikiko)

	2007		2008		2009		2010		2011		2013	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	92.365	100	91.353	100	125.514	100	108.131	100	88.128	100	65.346	100
Beharra duenaren adina												
18-24 urte	27.894	30,2	29.130	31,9	27.273	21,7	21.379	19,8	12.964	14,7	8.431	12,9
25-34 urte	47.938	51,9	50.026	54,8	89.633	71,4	72.038	66,6	63.342	71,9	47.861	73,2
35-44 urte	16.533	17,9	12.197	13,4	8.608	6,9	14.714	13,6	11.821	13,4	9.053	13,9
Batez besteko adina (urteak)	29,1		28,7		27,8		28,5		28,8		28,0	
Sexua												
Emakumeak	41.287	44,7	39.724	43,5	55.227	44,0	48.029	44,4	42.420	48,1	31.777	48,6
Gizonak	51.078	55,3	51.630	56,5	70.287	56,0	60.102	55,6	45.708	51,9	33.569	51,4
Ikasketa-maila												
Ikasketarik gabe / Lehen mailako ikasketak	15.240	16,5	13.177	14,4	20.961	16,7	15.269	14,1	15.837	18,0	7.451	11,4
Lanbide-ikasketak	28.633	31	33.982	37,2	39.327	31,3	35.705	33,0	22.949	26,0	21.248	32,5
Bigarren mailako ikasketak	9.698	10,5	10.376	11,4	14.292	11,4	11.885	11,0	9.188	10,4	6.917	10,6
Unibertsitate-ikasketak	38.793	42	33.543	36,7	50.934	40,6	45.271	41,9	40.154	45,6	29.730	45,5
ED/EDE	-	-	275	0,3	-	-	-	-	-	-	-	-
Lan-egoera												
Landuna, bere kontura	5.810	6,3	5.926	6,5	15.296	12,2	7.953	7,4	6.983	7,9	7.161	11,0
Landuna, kontratu finkoa	47.162	51,1	47.145	51,6	59.581	47,5	53.744	49,7	60.880	69,1	28.821	44,1
Landuna, aldi baterako kontratua	33.307	36,1	29.614	32,4	35.749	28,5	36.552	33,8	12.848	14,6	23.885	36,6
Langabea	4.332	4,7	6.390	7,0	8.083	6,4	6.415	5,9	5.089	5,8	3.608	5,5
Beste egoera bat	1.755	1,9	1.750	1,9	6.248	5,0	3.467	3,2	2.329	2,6	1.341	2,1
ED/EDE	-	-	528	0,6	557	0,4	-	-	-	-	530	0,8

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko Estatistika. 2013



Eranskin metodologikoa:

Txosten honetan Etxebizitza Beharrei eta Eskaerei buruzko 2013ko Inkestaren (EBEI) emaitzarik garrantzitsuenak bildu dira; eragiketa estatistiko hori bi urtean behin egiten du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoak.

EBEIk emandako informazioa bi galdetegiren aplikazioan dago oinarrituta. Haien bidez, bi populaziori buruzko informazioa lortzen da:

- EAEn familia-etxebizitza nagusietan bizi diren familiak.
Etxebizitza nagusizat hartzen dira pertsona baten edo gehiagoren **ohiko bizileku gisa** (errolatuta egon edo ez) **urte osoan edo urteko zatirik handienean erabiltzen direnak** (urtean 6 hilabete baino gehiago). Azterlanean ez dira sartu bigarren egoitza moduan erabiltzen diren etxebizitzak edo hutsik daudenak.
Etxebizitza nagusi horietan bizi diren familiei dagokienez, etxebizitza nagusia birgaitzeko edo aldatzeko beharra aztertu da.
- 18 urtetik 44 urtera bitarteko pertsonak, **emantzipatu gabeak, eta gurasoekin edo tutoreekin bizi direnak**.
Talde horri dagokionez, lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra aztertu da. Kasu honetan, azpimarratzekoa da behar hori dagoela esateko ezinbestekoa dela errenta edo diru-sarrera propioak izatea. Errenta edo diru-sarrera propioak ez izateak esan nahi du ezin zaiola aurre egin lehenengo etxebizitza eskuratzeko proiektuari, eta beraz, egoera horietan beharrik ez dagoela jotzen da.

Familia-etxebizitzetarako galdetegia betetzeko, **3.500 etxebizitzako gutxieneko lagina** egitea ezarri da. Lagina ausaz aukeratu da Eustaten Biztanleen Erregistro Estatistikotik eta Etxebizitzen Direktoriotik, laginketa estratifikatu baten bidez, lurralde historikoka eta udalerrien tamainaren arabera (hiriburuak, 20.000 biztanletik 100.000 biztanlera bitarteko udalerriak eta 20.000 biztanletik beherakoak).

Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 urtetik 44 urtera bitartekoentzako galdetegia betetzeko, **1.200 pertsonako gutxieneko lagina** egitea ezarri da. Lagina ausaz aukeratu da Eustaten Biztanleen Erregistro Estatistikotik eta Etxebizitzen Direktoriotik, laginketa estratifikatu baten bidez, lurralde historikoka eta adin-taldearen arabera (18-24 urtekoak, 25-34 urtekoak eta 35-44 urtekoak).

2013ko Inkestan, lagina 3.657 etxebizitza nagusikoa izan da etxebizitza aldatzeko edo birgaitzeko beharrak aztertzeko, eta 18 urtetik 44 urterako bitarteko 1.215 pertsonakoa, lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra aztertzeko.



Definizioak:

Beharra: etxebizitza aldatzeko, lehenengo etxebizitza eskuratzeko edo etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien kopurua adierazten du. Hiru kategoria bereizten dira:

- Etxebizitza **aldatzeko beharra:** nor bere etxebizitzarekin gustura ez egoteagatik sortutako beharra, etxebizitza aldatzeko nahia eragiten duena.
- Nork bere etxebizitza nagusia **birgaitzeko beharra:** familiei etxebizitza birgaitzea iruditzen zaie aukerarik egokiena, etxebizitzarekin gustura ez egotea eragiten duten kausak konpontzeko. Birgaitzeko beharra eraikinaren elementu komunekin egon daiteke lotuta, edo bestela, etxebizitzaren beraren elementu pribatiboekin, eta birgaitze-lanak 3.000 eurotik gorakoa izan behar du, betiere.
- **Lehenengo etxebizitza eskuratzeko banakako beharra:** familiarekin batera bizi diren kideen beharra (seme-alaben beharra, gehienbat); talde horretan 18 urtetik 44 urtera bitarteko kideak sartzen dira, familia-unitatetik edo tutoreengandik independizatu eta beren familia osatu nahi dutenak. Behar hori dagoela esateko, ezinbestekoa da interesdunek errenta edo diru-sarrera propioak izatea.

Eskaera: etxebizitza aldatzeko, lehenengo etxebizitza eskuratzeko edo etxebizitza birgaitzeko beharra izanik, behar horri epe jakin batean aurre egiteko aukera izango dutela uste duten familien edo pertsonen kopurua da. Azterlanean, urtebeterako eskaera, 2 urterako eskaera eta 4 urterako eskaera sartu dira.

- **4 urterako eskaera:** behar bakoitzari (aldatzea, birgaitzea eta eskuratzea) epe horretan aurre egitea segurutzat edo nahiko segurutzat jotzen dutenen %.
- **2 urterako eskaera:** behar bakoitzari (aldatzea, birgaitzea eta eskuratzea) epe horretan aurre egitea segurutzat edo nahiko segurutzat jotzen dutenen %.
- **Urtebeterako eskaera:** behar bakoitzari (aldatzea, birgaitzea eta eskuratzea) hurrengo bi urteetan aurre egitea segurutzat edo nahiko segurutzat jo eta etxe bila ari direnen edo birgaitzeko obren aurrekontuak eskatu dituztenen %.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Espezifikoa

Donostia kalea 1, 01011, Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta

Telefonoa: +34-945-01 93 57; Faxe: +34-945-01 63 40

WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovpe110x/es/>

Helbide elektronikoa: estadística-eps@ej-gv.es

**ETXEBIZITZA BEHARREI ETA ESKAEREI BURUZKO INKESTA (EBEI). 2013****LABURPEN TXOSTENA**

AURKIBIDEA

1.	ETXEBIZITZA NAGUSIA BIRGAITZEKO BEHARRA.....	1
2.	ETXEBIZITZA NAGUSIA ALDATZEKO BEHARRA	5
3.	LEHENENGO ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA	10